



ETORKINEN GIZARTERATZEA EAEn

44. Begiradan, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren Atzerritar Etorkinei egindako Inkesta (AEI) sakonaren zenbait datu aztertuko ditugu, atzerrian sortu diren eta EAEn bizi diren etorkinen ezaugarrien eta egoera sozialaren argazki garbi bat baita inkesta. Gainera, Ikuspegi@k Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2007an atzerritarrei egindako inkesta baliatuz, zenbait datu konparatuko ditugu, etorkinen gizarteratzearen bilakaeraren zenbait alderdi aztertzeko.

1. Datu orokorrak

EAEn bizi diren atzerritar etorkinei egindako inkestaren datuen arabera, atzerrian sortutako 179.582 lagun bizi ziren EAEn 2010ean. Kopuru hori nabarmen handiagoa da Espainiako Estatistika Institutuaren datuek diotena (139.369) baino, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak kontuan hartzen baititu, atzerritarrez gain, atzerrian sortu baina espainiar herritar bihurtu diren pertsonak; 42. Begiradan (herritartzei buruzkoan) ikusi genuenez, berriz, estatistika ofizialetan ez dira agertzen atzerrian sortu baina espainiar herritar bihurtu diren pertsonak. Atzerrian sortutakoek EAEko biztanleriaren % 8,2 osatzen dute, eta EAEko biztanleriaren % 6,4k atzerritar herritartasuna dute.

1. taulak adierazten duenez, etorkinen ia % 47 Latinoamerikan sortuak dira. Kolonbiarrek, ekuadortarrek eta perutarrek etorkinen % 18,4 osatzen dute, baina nabarmentzekoak dira boliviarrak ere, % 7,7 osatzen baitute eta haien kopuruak gora egin baitu azken urteotan.

1. taula. Atzerrian sortu eta EAEn bizi den populazioa 2010ean, jatorriaren arabera

Guztira	179.582
Mendebaldeko EB	11,9
Errumania eta Ekialdeko EBko beste batzuk	10,4
EUROPA	22,3
Magreb	15,2
Argentina, Txile, Uruguai	4,5
Kolonia, Ekuador, Peru	18,4
Bolivia	7,7
Paraguai	3,1
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	8
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	5,2
LATINOAMERIKA	46,9
Txina	2,7
Senegal	1,8
Afrikako gainerako herrialdeak	4,7
AFRIKA	21,7
Munduko gainerako herrialdeak	6,4

Iturria: AEI. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Europar sortutakoek osatzen dute etorkinen bigarren multzorik handiena, etorkinen % 22,3 baitira, eta Afrikan sortutakoek hirugarrena, % 21,7 baitira. Europar etorkinen artean, aipatzekoa da errumaniarren kopurua, Ekialdeko EBn sortutako etorkinen multzorik handiena osatzen baitute eta etorkin guztien % 10,4 baitira, eta, Afrikan etorkinen artean, aipatzekoak dira Magreben sortutakoak, % 15,2 osatzen baitute; Afrikako gainerako herrialdeetako etorkinek, berriz, askoz ere multzo txikiagoak osatzen dituzte: senegaldarrak, adibidez, etorkinen % 1,8 baino ez dira

2. taula. Atzerrian sortu eta EAEn bizi den populazioa 2010ean, jatorriaren eta sexuaren arabera

	Gizona	Emakumea
Guztira	48,4	51,6
Mendebaldeko EB	57,2	42,8
Errumania eta Eki. EBko beste batzuk	48,6	51,4
Magreb	59,2	40,8
Argentina, Txile, Uruguai	48,6	51,4
Kolonia, Ekuador, Peru	43,5	56,5
Bolivia	41,7	58,3
Paraguai	39,1	60,9
Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	36,3	63,7
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	27,1	72,9
Txina	52,7	47,3
Senegal	78,2	21,8
Afrikako gainerako herrialdeak	53,2	46,8
Munduko gainerako herrialdeak	51,6	48,4

Iturria: AEI. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Sexuaren eta adinaren arabera datuei dagokienez, ez dago ezberdintasun handirik Ikuspegik erroldan oinarrituz landutako datuen aldean. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak EAEn bizi diren atzerritar etorkinei egindako inkestak zenbait joera berresten ditu, hala nola emakumeen garrantzia EAEn bizi diren etorkinen artean; inkestaren arabera, emakumeak nagusi dira –etorkinen % 51,6 osatzen dute–, latinoamerikarren artean batez ere.

2. Egoera administratiboa

Etorकिन egoera administratiboa oso aldagai garrantzitsua da etorकिन gizarteratzea aztertzeko, eta oso estu lotuta dago etorकिनek hemen eman duten denborarekin. Era berean, egoera administratiboa eta hemen emandako denbora oso estu lotuta daude gizarteratzearekin: zenbat eta hobeia izan egoera administratiboa eta zenbat eta luzarago egon izan hemen, orduan eta hobeak dira gizarteratzearen adierazleak, eta alderantziz. Immigrazioaren Euskal Behatokiak "egonkortasun-continuum" esan izan dio lotura horri, eta 2007ko inkestan ere sumatzen zen.


2007ko eta 2010eko datuak konparatzen baditugu, ikusiko dugu EAEn bizi diren etorकिन egoerak hobera egin duela argi eta garbi. 2007an, etorकिन guztien % 22,8 zeuden legez kanpo, baina ehunekoak behera egin du, eta % 8,1koa zen 2010ean. Egonkortasun-continuumaren ildoan, lehenengo baimena dutenen ehunekoak % 13,4tik % 1,4ra jaitsi da. Ildo berean, egoera egonkorrean dauden ehunekoak handitu egin da 2010ean: bizilekua izateko baimena dutenena % 15,8tik % 54,7ra igo da 2007tik 2010era bitartean, eta espainiar herritartasuna dutenena, berriz, % 8,5etik % 20ra.

Are gehiago, etorकिन ia hiru laurden (% 74,7) egoera administratibo egonkor eta finkoan daude (espainiar herritartasuna edo baimen iraunkorra dute); 2007an, berriz, etorकिन % 24,3 bakarrik zeuden egoera berean.

Nabarmentzekoa da hamar lagunetik bat baino gutxiago dagoela legez kanpoko egoeran. Espainiar herritartasuna izatearen alderantzizkoa da legez kanpo egotea, Espainian sortutako edozein pertsonak duenaren antzeko legezko estaldura ematen baitu espainiar herritartasunak; egonkortasun administratibo gorenara adierazten du. Alde horretatik, egoe-

rak hobera egin du: 2007an, etorकिन % 8,5ek zuten espainiar herritartasuna, eta, 2010ean, berriz, % 20k.


1. grafikoa. EAEn bizi diren etorकिन egoera administratiboaren bilakaera 2007 eta 2010 artean



Iturria: AEI. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Etorकिन egoera administratiboa oso ezberdina da jatorriaren arabera, bi faktore direla-eta nagusiki. Bata da Erkidegoan sortutakoek estatus administratibo ezberdina dutela, errazagoa baitzaie beren egoera erregularizatzea. Bestea da hemen emandako denbora, eta are garrantzitsua da, izugarriko eragina baitu egoera administratiboan eta haren hobekuntzan, esan bezala. Ildo horretan, 2. grafikoa adierazten duenez, EAEn finkatuta dauden herritartasunetako etorकिन egoera nabarmen erregularragoa da azken urteotan agertu diren herritartasunetako etorकिनena baino.

2. grafikoa. EAEn bizi diren etorकिन egoera administratiboa (erregularra / legez kanpoko) 2010ean, etorकिन jatorriaren arabera



Iturria: AEI. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

3. Ikasketa-maila

Ikasketa-mailari dagokionez, egun, etorkinen % 8,2k ez dute ikasketa esanguratsurik. % 28,7k, berriz, lehen mailako ikasketak dituzte; % 35,4k, bigarren mailakoak; % 9,6k, lanbide-heziketakok; eta % 18,2, unibertsitate-mailakoak. 2007ko egoeraren aldean, ez dago ezberdintasun handirik, unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen ehunekoan izan ezik, % 14,9tik % 18,2ra igo baita; alderantziz, lehen mailako ikasketak dituztenen ehunekoa % 31,7tik % 28,7ra jaitsi da.

3. taula. EAEn bizi diren etorkinen ikasketa-mailaren bilakaera 2007 eta 2010 artean

	2007	2010
Ikasketa esanguratsurik ez	7,1	8,2
Lehen mailako ikasketak	31,7	28,7
Bigarren mailako ikasketak	36,7	35,4
Lanbide-heziketako erdi-mailako ikasketak	9,0	9,6
Unibertsitate-mailako ikasketak	14,9	18,2

Iturria: Ikuspegi@k-Immigrazioa eta AEI

4. Lan-merkatua eta lan-baldintzak

4. taulak adierazten duenez, etorkinen lan-egoerak okerrera egin du, langabeen eta jardunean ez dauden ehunekoak nabarmen hazi baitira: % 17,8tik % 31ra eta % 12,4tik % 24,5era, hurrenez hurren. Jardunean dagoen biztanleriaren ehunekoak, berriz, behera egin du 2007tik 2010era bitartean, % 69,3tik % 52,1era. Pentsatzekoa denez, krisiaren eta lan-merkatuan izan duen eraginaren ondorio dira datu horiek.

4. taula. EAEn bizi diren etorkinen lan-egoeraren bilakaera 2007 eta 2010 artean

	2007	2010
Jardunean (lanean) daudenak	69,3	52,1
Langabeak	17,8	31
Jardunean ez daudenak (erretiratuak, etxekoandreak)	12,4	24,5

Iturria: Ikuspegi@k-Immigrazioa eta AEI


Etorकिन jatorriari erreparatzen badiogu, desberdintasun handiak ikusiko ditugu langabezia-tasari dagokionez. Eskualde gehientsuenetako etorkinen langabezia-tasa handiagoa da bertakoena baino, eta salbuespen bakarra txinatarraren langabezia-tasa da, oso txikia baita, % 5,3koa; are

gehiago, bertakoena baino txikiagoa da. Beren ezaugarriak eta lan-merkatuan sartzeko bideak direla medio, txinarrak salbuespena dira etorkinen lan-egoeraren aldetik.

Argentinan, Txilen eta Uruguain sortutako adierazleak dira onenak, haien langabezia-tasa % 19,8koa baita. Oro har, nabarmenezkoa da jatorri gehienetako etorkinen langabezia-tasa batez bestekoaren ingurukoa (% 31 ingurukoa) dela, baina badela salbuespen bat, Afrikan sortutakoena askoz ere handiagoa (% 50etik gorakoa) baita: Magreben sortutakoena langabezia-tasa % 51,3koa da; Senegalen sortutakoena, % 51,6koa; eta Afrikako gainerako herrialdeetan sortutakoena, % 59,5koa. Laburbilduz, Afrikan sortu eta EAEn bizi direnen erdia baino gehiago lan gabe daude.

4. grafikoak kontratu motei buruzko datuak biltzen ditu, etorkinen egoera administratiboaren arabera. Berez, legez kanpo daudenek ezin dute izan lan-kontraturik, eta, hori dela eta, pentsatzekoa denez, legez kanpo dauden gehientsuenak (% 95,6) kontraturik gabe ari dira lanean. Ildo horretan, grafikoak adierazten du, beste egoera administratibo batzuetan dauden etorkinen artean, bizilekua izateko baimena izatea funtsezkoa dela kontraturik gabe ari direnen ehuneko txikiagoa izateko eta % 10 inguruan egonkortzeko. Alde horretatik,

3. grafikoak. EAEn bizi diren etorkin langabeak 2010ean, jatorriaren arabera




Iturria: AEI. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

lanean kontraturik gabe ari direnen ehunekoari dagokionez, badirudi ez dagoela egonkortasun-continuumik eta faktore nagusia ez dela bizilekua izateko baimen mota bat edo beste izatea, baimena izatea bera baizik.

Egoera administratiboaren arabera datuei erreparatzen badiegu, ordea, ikusiko dugu, zenbat eta hobe izan egoera

administratiboa, orduan eta handiagoa dela kontratu mugagabea dutenen ehunekoa –era berean, esan bezala, harreman estua dago egoera administratiboaren eta hemen emandako denboraren artean–. Zehazki, bizilekua izateko baimen iraunkorra edo espainiar herritartasuna dutenen % 50ek baino gehiagok dute kontratu mugagabea: hurrenez hurren, % 55,2k eta % 59,9k.

4. grafikoa. Etorकिन kontratu motak 2010ean, egoera administratiboaren arabera



Iturria: AEI. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

5. Bizi-baldintzak, ongizatea eta pobrezia


Etorकिन hileko batez besteko diru-sarrerak 696,37 eurokoak dira. Pentsatzekoa denez eta 5. grafikoa adierazten duenez, hemen emandako denbora aldagai garrantzitsua da: zenbat eta denbora gehiago eman izan hemen, orduan eta handiagoak dira diru-sarrerak. Ildo horretan, duela bi urte baino gutxiago etorritakoen diru-sarrerak 426,74 eurokoak dira batez beste; hemen 15 eta 19 urte bitartean daramatenak, 851,48 eurokoak; eta 20 urte baino gehiago daramatenak, 920,58 eurokoak.

Etorकिन egoera administratiboa zenbat eta hobe izan, orduan eta handiagoa da haien estutasunik eza edo ongizatea ere: legez kanpo dauden artean, % 10,3k ez dute estutasunik, eta, espainiar herritartasuna dutenen artean, berriz, % 29,5ek. Gauza bera gertatzen da pobreziarekin, kontrako noranzkoan, pentsatzekoa denez: legez kanpo dauden artean, % 22,7 dira pobreak, eta, espainiar herritartasuna dutenen artean, berriz, % 8,7, 6. grafikoa adierazten duenez.

Bada etorकिन gabezia ekonomikoekin eta pobreziarekin zerikusia duen datu bat: gizarte-laguntzak eta, zehazki, diru-sarrerak bermatzeko errenta hartzen dituztenen ehunekoa. 2007an, etorकिन % 6,6k hartzen zuten errenta hori, eta, 2010ean, % 9,6k. Bizilekua izateko baimena ez dutenen artean, berriz, % 25,2k ere hartzen dute.


Diru-sarrerak bermatzeko errenta hartzearen eta etorकिन jatorriaren arteko erlazioari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu beste alor batzuetan sumatu ditugun joerak sumatzen direla alor honetan ere. EAEn finkatuta edota egoera ekonomiko onean dauden etorkinek batez beste (% 9,6) baino gutxiago hartzen dute diru-sarrerak bermatzeko errenta: esate baterako, Argentinan, Txilen eta Uruguain sortutakoen % 2,1ek hartzen dute, eta Mendebaldeko EBn sortutakoen % 2,2k. Afrikan sortutakoek eta azken urteotan agertu diren herritartasunetako etorkinek, berriz, batez beste baino nabarmen gehiago hartzen dute diru-sarrerak bermatzeko errenta: adibidez, Magreben sortutakoen % 12,4k hartzen dute; Senegalen sortutakoen % 22,2k ere; Paraguain sortutakoen % 11,1k; eta Bolivian sortutakoen % 20,5ek.

5. grafikoa. EAEn bizi diren etorकिन hileko diru-sarrerak 2010ean, hemen emandako urteen arabera




Iturria: AEI. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

6. grafikoa. EAEn bizi diren etorkinen pobrezia eta ongizatea 2010ean, egoera administratiboaren arabera, gerora sortutako legez kanpokotasuna kontuan hartu gabe



Iturria: AEI. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

7. grafikoa. EAEn bizi diren eta diru-sarrerak bermatzeko errenta hartzen duten (diru-sarrerak nagusiztat diru-sarrerak bermatzeko errenta duten) etorkinak 2010ean, jatorriaren arabera



Iturria: AEI. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

6. Diskriminazioa eta gizarteratze-maila

EAEn bizi diren etorkinen egoera eta haren bilakaera aztertu ditugu orain arte, etorkinen gizarteratze-prozesuaren norainoan eta norabidean sakontzeko, eta, jarraian, azterketa bukatzeko, gizarte hartzailearen diskriminazioari eta etorkinen gizarteratze-mailari buruzko zenbait datu emango ditugu.


EAEn bizi diren etorkinen % 19,6k nolabaiteko diskriminazioa sumatu dute, eta % 6,5ek, berriz, diskriminazio larria. Datu horiek aditzera ematen dutenez, etorkin gehientsuenek ez dute izan diskriminazio-problema larririk. Hala ere, jatorriaren arabera datuei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu aldeak daudela eskualde batzuetan eta besteetan sortutako etorkinen artean. Alde horretatik, Latinoamerikako herritar-tasun jakin batzuetako etorkinek sumatu dute gehien arrazakeria, xenofobia, arbuioa edo bazterkeria, noiz etorri ziren gorabehera: hain zuzen ere, Kolonbian, Ekuadorren eta Perun sortutakoek osatzen duten multzoaren % 23,3k nabaritu du; Bolivian sortutakoek % 28,9k; eta Brasilen, Venezuelan eta Dominikar Errepublikan sortutakoek osatzen duten multzoaren % 31,6k. Senegalen sortutako etorkinek eta Afrikako gainerako herrialdeetan sortutakoek ere asko

5. taula. EAEn bizi diren eta arrazakeria, xenofobia, arbuioa edo bazterkeria sumatu duten etorkinak 2010ean, jatorriaren arabera

	Arazoren bat	Arazo larria
Guztira	19,6	6,5
Mendebaldeko EB	6,3	2,5
Errumania eta Ekiald. EBko beste batzuk	17,2	3,5
Magreb	20,0	6,8
Argentina, Txile, Uruguai	12,1	5,2
Kolonbia, Ekuador, Peru	23,3	9,0
Bolivia	28,9	8,5
Paraguai	15,4	4,3
Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	31,6	9,7
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	18,1	7,5
Txina	13,1	1,7
Senegal	25,7	8,6
Afrikako gainerako herrialdeak	35,3	16,9
Munduko gainerako herrialdeak	10,5	0

Iturria: AEI. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

8. grafikoa. EAEn bizi diren etorkinek beren gizarteratzeari buruz duten irudipena 2010ean, egoera administratiboaren arabera



Iturria: AEI. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

sumatu dute: hurrenez hurren, haien % 25,7k eta % 35,3k nabaritu dute. Herritartasun horietako etorkinen ezaugarriak kontuan izanik, badirudi arrazen arteko desberdintasunek eragin handia dutela diskriminazioa dagoen irudipenean eta, zenbat eta desberdintasun handiagoa izan etorkinen eta gizarte hartzailearen arrazen artean, diskriminazioa ere orduan eta handiagoa dela.

Diskriminazioarekin batera, edo are txanponaren beste aldean, etorkinek beren gizarteratze-mailari buruz duten irudipe-

na dugu. Alde horretatik, etorkinen % 80,8 oso edo nahiko gizarteratu dira, eta % 11, berriz, gutxi gizarteratu dira edo ez dira gizarteratu. 8. grafikoa adierazten duenez, zenbat eta luzaroago egon izan hemen edo zenbat eta egoera administratiboa hobe izan, etorkinek orduan eta gehiago uste dute gizarteratuta daudela: legez kanpo dauden etorkinen artean, % 42,7k uste dute gutxi gizarteratu direla edo ez direla gizarteratu; espainiar herritartasuna dutenen artean, berriz, % 8,8k bakarrik uste dute gauza bera.

7. Ondorioak

Aztertutako datuei oro har erreparatzen badiegu, ikusiko dugu 2007an sumatutako egonkortasun-continuumaren berres-tutela itxuraz eta, are gehiago, egonkortasun-continuumaren areagotu egin dela. Etorकिन egoera administratiboari dagokionez, hobekuntzak izan dira espainiar herritartasuna edo bizilekua izateko baimen iraunkorragoa lortu dutenei eta erroldatu egin direnei buruzko datuetan, etorkinak hobeto gizarteratu diren eta gizarte hartzailearen egonkortu diren adierazgarri. Alderdi ekonomikoei, sozialei eta kulturelei dagokienez ere, adierazle gehienak hobetu dira, lan-arloko baten bat izan ezik, lan-arloko adierazle batzuek okerrera egin baitute, krisialdiaren ondorioz; alde horretatik, litekeena da lan-merkatuaren egoerak okerrera egin duen adierazlerik garbiena langabezia-tasa izatea.

Bestalde, adierazleek aditzera ematen dutenez, migrazioa finkatu egin da EAEn. Badirudi etorkinen jarioak hartzeko eta etorkinei harrera egiteko garaia amaitu dela eta etorkinen stock handi bat izateko eta gizarteratzeari eta aniztasuna kudeatze-ari buruzko gaien garrantzia emateko garaia heltzen ari dela. Hau da, migrazioa zikloz aldatzen ari da EAE barruan.

EAEn bizi diren etorkinek osatzen dituzten taldeei dagokienez, lehenik eta behin, nabarmentzekoa da etorkinek ez dutela eratzten multzo bakar eta homogeen bat. Aitzitik, zenbait multzotan banatuta daude. Ezberdintasun handiak daude batzuen eta besteen artean, eta, areago, baliteke batzuen eta besteen ezaugarriak kontrakoak izatea. Ildo horretan, hiru multzo bereizten ditugu:

- 1. Egoera ahulean dauden etorkinak.** Multzo honetako etorkinen gizarteratzeari buruzko adierazleak okerragoak dira beste multzoetako etorkinen gizarteratzeari buruzkoak baino, eta haien gizarte-, ekonomia- eta lan-arloko egoera eze-egonkorragoa da. Azken urteotan agertutako herritartasunetakoak diren eta egoera administratibo txarrean dauden etorkinek osatzen dute multzo hau, hala nola boliviarrak, paraguaitarrak, senegaldarrak eta Afrikako beste herrialde batzuetakoak. Etorकिन guztiak osatzen duten multzoaren barruan, multzo hau ez da handia ez txikia. Multzo honen barruan, aipatzekoak dira Magreben eta, zehazki, Marokon sortutako etorkinak, bereziak baitira. Izan ere, EAEn finkatuta dauden etorkin multzoetako bat eratzten dute marokorrek, urteak baitira etortzen hasi zirela, baina marokor gehiago etorri dira azken bi edo hiru urteotan, eta, horren ondorioz, egun, bi motako etorkin marokorrek daude EAEn: batzuek denbora luzea daramate hemen eta egoera administratibo onean daude; beste batzuk, berriz, etorri berriak dira eta, adierazleen arabera, besteak baino egoera okerragoan daude.
- 2. Gizarteratzen ari diren etorkinak.** Multzo honetako etorkinen gizarteratzeari, bizi-baldintzei eta bizikidetzari buruzko adierazleak ez dira onak ez txarrak. Duela nahikotxo edo aspaldi agertutako herritartasunetakoak diren eta egoera administratibo onean dauden etorkinek osatzen dute multzo hau, hala nola errumaniarrak, perutarrek eta, batez ere, kolonbiarrak eta ekuadortarrek. Etorकिन guztiak osatzen duten multzoaren barruan, multzo hau handi samarra da.

3. Gizarteratu edo erdi gizarteratu egin diren etorkinak. Multzo honetako etorkinen egoera sozialari eta lan-egoerari buruzko adierazleak dira onenak; are gehiago, adierazle asko bertako biztanleriaren egoera sozialari eta lan-egoerari buruzkoen parekoak dira. Era berean, multzo honetako etorkinek elkarbizitza estua eta harreman handia dute bertako biztanleriarekin. Aspaldi agertutako herritartasunetakoak diren edota egoera administratibo onean dauden etorkinek osatzen dute multzo hau, hala nola argentinarrek, txiletarrek eta uruguaitarrek eta Mendebaldeko Europako herritarrek. Etorkin guztiak osatzen duten multzoaren barruan, multzo hau gutxienena da. Multzo honen barruan, aipatzekoak dira txinatarrek: haien ekonomia- edo lan-arloko egoerari buruzko adierazleak oso onak dira (areago, horrelako adierazle batzuk hobekia dira bertako biztanleriaren egoerari buruzkoak baino), baina, aldi berean, etorkinek oso gabezia larriak dituzte gizarte hartzailearekiko bizikidetzaren eta harremanen aldetik. Alegia, txinatarrek oso barne-kohesio handia dute, baina oso gutxi gizarteratu dira.

Bestalde, aztertutako materialaren barruan badira etorkizunari begira kezkarriak diren zenbait gai, krisiaren ondorio direnak neurri handi batean:

- Langabezia. Krisiak etorkinen langabezia-tasa igoaraztea ez da berria, baina, nolana ere, etorkinen lan-merkatuak okerrera egin duela adierazten du. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak EAEn bizi diren atzerritar etorkinei egindako inkestaren emaitzak nabarmen okerragoak dira 2007an argitaratutakoak baino, eta joera hori berresten dute.
- Ahulezia eta diru-sarrerak bermatzeko errenta hartzea. Etorkinen bizi-baldintzei buruzko atalean ikusi dugunez, etorkinak oso egoera ahulean daude, diru-sarrerei, pobrezia-tasari eta diru-sarrerak bermatzeko errenta hartzei buruzko datuek adierazten dutenez. Printzipioz, adierazleak hobetu egiten badira denborarekin, horrek ez luke izan beharko kezkarria, kontuan izan behar baita etorkinak ahulago eta ezegonkorrago daudela etorri berriak direnean. Hala ere, krisiak ahulezia areagotu dezake, diru-sarrerak bermatzeko errenta hartzen dutenen kopuruak (batez ere, multzo jakin batzuetako etorkinenak, hala nola boliviarrak eta senegaldarrek) gora egin izanak frogatzen duenez.
- Gerora sortutako legez kanpokotasuna. EAEn bizi diren etorkinen artetik, oso gutxi daude gerora sortutako legez kanpoko egoera administratiboan: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak EAEn bizi diren atzerritar etorkinei egindako inkestaren arabera, % 0,4. Lagina ez da adierazgarria, eta, hori dela eta, zuhurrak izan behar dugu haiei buruzko ondorioak ateratzen. Nolanahi ere, adierazleek diote horrelako egoeran daudenak oso gutxi gizarteratu direla eta oso ezegonkor daudela.

Laburbilduz, egungo egoera nahiko ona da, eta egonkortasun-continuum automatikoa da gutxi gorabehera. Are gehiago, ez dirudi krisiak eragin larria izan duenik EAEn bizi diren etorkinak gizarteratzeko prozesuan, orain arte gutxienez. Edonola ere, ezin ditugu alde batera utzi neurri handi batean krisiaren ondorio diren zenbait gai.

BIBLIOGRAFIAKO NOBEDADEAK

Inmigración e integración en la UE: dos retos para el s. XXI *Eurobask*

2011n, honako gai honi eskaini zaio Francisco Javier de Landaburu saria: "Inmigración e integración en la UE: dos retos para el s. XXI". Hain zuzen ere, migrazio- eta integrazio-politiken azterketa bultzatu nahi da gai horrekin, gizartearen integritate dagoen eta ekonomikoki lehiakorra den Europar Batasuna sustatzeko.

Javier de Lucasek, X. sariaren irabazleak, migrazioen ikusmolde instrumentala kritikatu du; immigrazioaren eta haren erronkei buruzko ikuspegi politikorik ez egoteak erakusten omen du ikusmolde hori. Defendatu du gizarteratzea, prozesu sozial gisa, ezin dela inoiz amaitutzat eman, eta adierazi du berdintasuna dela gizarteratzea bermatzeko biderik zuzenena; alegia, berdintasuna egon behar du eskubideak aitortzeko eta bermatzeko garaian.

Bi sari akzesitak hauek dira: alde batetik, Anna Quiñonesen ikerketa-lana, familia-eskubidea bera eta herrialde islamikoetako nazionalitatea duten eta Europan bizi diren pertsonak aztergai dituen; eta, bestetik, Patricia Campelok, Imanol Zuberok eta Amaia Izaolak egindako lana, Europako gizarteetan aniztasun etnokulturalaren ondorio sozial eta politikoen inguruan sortu den eztabaida aztertzen duena.



Deskargatu

BIBLIOGRAFIAKO NOBEDADE GEHIAGO


Biculturalismo y segundas generaciones: integración social, escuela y bilingüismo

Ángeles Arjona, Francisco Checa eta Teresa Belmonte, 2011



El derecho de asilo frente a la violencia de género

Djamil Tony Kahale Carrillo, 2010



Nahi dugun garapena: EAEn dauden etorkinen elkarteetatik jasotako ikuskerak



Guía para orientación legal en inmigración

Javier Sánchez Ribas eta Francisco Franco Pantoja, 2011



Informe anual sobre migraciones e integración CeiMigra 2010-2011

CeiMigra, 2011



Sufragio y participación política de los extranjeros extracomunitarios en Europa

David Moya Malapeira eta Alba Viñas Ferrer, 2010



facebook

Jarrai iezaguzu!

Ikuspegi@k - Immigrazioaren Euskal Behatokia badago Facebooken.

Jarrai iezaguzu gure web orriko azkenengo nobedadeak momentuan ezagutu nahi badituzu. Immigrazioarekin loturiko berriak, deialdiak eta bestelako eduki interesgarriak eskura izateko, bila gaitzazu: **Ikuspegi@k - Immigrazioa/Inmigración**